

Euskal AEn kokatutako enpresek 806.220 pertsoneri eman diete lana 2003an, aurreko urtean baino %2,2 gehiago

Zerbitzuen sektoreko landunen gehikuntzak jarraitu egin du eta %62,7ko parte hartzea du guztizkoan.

2003an, egoitza Euskal AEn duten enpresek 171.988 establezimendutan (lantegiak, dendak, bulegoak ...) gauzatu dute jarduera, eta 806.220 laguni eman diete lana, Eustatek egin duen Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren azken eguneratzearen arabera. 1998tik enpleguak 126.685 lagun irabazi ditu Euskadin eta urteko batez besteko %3,5eko tasa metatura iritsi da.

Establezimenduen guztizko kopurua %0,9 hazi da 2002aren aldean. Gehikuntza hori *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak, eraikuntza eta bestelako zerbitzu-jarduerak* sektoreetan kontzentratu da eta gainerakoetan, ostera, jaitsi egin da.

Aurreko urteetan bezala, jarduera-adar dinamikoena berriro ere *eraikuntza* izan da eta %6,7ko enpleguaren hazkunde-tasa izan du (Bizkaian %+8,0). *Ostalaritza* (%3,8) eta *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak* (%3,2) sektoreek ere gairatu egin dute batez bestekoa.

Establezimenduak eta enplegua jarduera-adarka. 2003

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	03/02	Enplegua	03/02	Kop.	03/02	Enplegua	03/02	Kop.	03/02	Enplegua	03/02	Kop.	03/02	Enplegua	03/02
Guztira	171.988	0,9	806.220	2,2	22.540	1,4	130.403	1,6	87.578	0,6	404.559	2,6	61.870	1,2	271.258	1,9
Industria eta energia	15.185	-0,9	223.376	0,5	2.452	0,8	44.825	0,4	6.745	-1,4	91.100	0,5	5.988	-1,1	87.451	0,5
Eraikuntza	23.070	3,3	77.337	6,7	3.095	2,6	11.042	5,0	10.711	3,7	42.540	8,0	9.264	3,2	23.755	5,2
Merkataritza eta konpon.	45.747	-0,9	125.135	2,1	5.684	0,7	18.267	4,4	24.237	-1,5	66.470	1,6	15.826	-0,7	40.398	1,7
Ostalaritza	14.831	-1,9	41.759	3,8	2.047	-2,2	5.979	2,9	8.113	-2,3	21.351	5,5	4.671	-1,0	14.429	1,9
Garraioa eta komunik.	14.975	-1,8	46.194	2,2	1.778	-2,4	5.716	0,6	7.989	-0,9	25.464	3,3	5.208	-2,8	15.014	0,8
Bankuak, aseg. eta enpr	32.627	4,8	116.383	3,2	4.192	4,7	14.956	-0,2	17.174	4,4	67.573	3,3	11.261	5,4	33.854	4,5
Bestelako zerbitzu-jard.	25.553	1,6	176.036	1,7	3.292	2,0	29.618	1,5	12.609	0,8	90.061	1,8	9.652	2,5	56.357	1,7

Iturria: Eustat

Herrialde-eremuka, Bizkaian, erkidegoko batez bestekoaren gainetik ibili de enplegu-sortzea (%2,6ko tasa); Gipuzkoan eta Araban, berriz, batez bestekoaren azpitik ibili dira, %1,9 eta %1,6ko tasekin, hurrenez hurren. *Eraikuntza* izan da lurralde-hazkunderik handiena izan duen sektorea, bere eremuetan. Bestalde, nabarmena da *ostalaritzaren* bilakaera: Euskal AEren eremuan, establezimenduak gutxitu egin dira, baina enplegua gehitu egin da. Esanguratsua da sektore honen kasua Bizkaian, %2,3ko establezimendu-galera izan arren, enplegua %5,5 hazi baita.

Gidazerrendan jasotako langileen %62,7 *zerbitzuen* sektorean dago, eta haren atzetik, *industriari* (%27,7) eta *eraikuntzan* (%9,6). Industriaren egiturazko enplegu-maila

handiena, herrialdeka, Araban dago oraindik ere, herrialde horretan landun-kopuruaren %34,4ra iristen baita, eta haren atzetik, Gipuzkoan (%32,2) eta, urrunago, Bizkaian (%22,5). Herrialde hori lehen tokian dago, *zerbitzu-sektoreko* (%66,9) eta *eraikuntzako* (%10,5) landun-kopuruaren ehunekoari dagokionez.

Biztanleria landun handiena daukan zerbitzu-adarra *bestelako zerbitzu-jarduerak* da, biztanleria landunaren %21,8 hartzen baitu (176.036 lagun). Haren atzetik, *merkataritza eta konponketa* adarra dago, 125.135 lagunekin, %15,5; eta, azkenik, *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak*, 116.383 lagunekin, hau da, guztizko enpleguaren %14,4rekin.

Enplegu-tamainaren araberako egitura apenas aldatu da, urte asko atzera eginda ere bai. 2003an, 128.141 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %18,9 hartzen dute. Beste muturrean, 50 enplegu edo gehiagoko establezimenduak 2.136 dira, guztizkoren %1,2, eta 308.135 lanpostu dituzte, guztizko enpleguaren %38,2.

ENPRESAK

Jarduera Euskal AEren eremuan gauzatzen duten industria- eta zerbitzu-enpresen kopurua %0,8 igo da 2003. urtean, 155.653 enpresa aktibo zenbatu baitira urte horretan. Enpresen %97,9k gure erkidegoaren lurraldean dute egoitza, eta 3.120k Estatuko gainerakoetan; azken enpresa horiek 83.648 laguni ematen diete enplegua, guztizkoaren %10,4ri.

Enpresen batez besteko tamaina establezimenduko 4,7 lagun landunekoa eta enpresako 5,2 lagun landunekoa da eta beraz, jarraitu egiten du batez besteko tamainaren hazkundeak, bai establezimendutan, bai enpresetan. Hala ere, alde nabarmena dago titularra pertsona fisikoa izan ala ez. Lehenengo kasuan, batez besteko enplegua establezimenduko 1,3 lagun landunekoa eta enpresako 1,4 lagun landunekoa da. Gainerako forma juridikoa dutenetan, aldiz, tamaina horiek 9,3 eta 11,4ra iritsi dira, hurrenez hurren.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Urte horretan euren jarduera hasi duten enpresen eta eten dutenen arteko saldo garbia 1.509koa da. Enpleguaren sortze garbian 5.067 landun gehiago esan nahi du, establezimendu berriek enplegu-ekarpen handixeagoa egin baitute itxi diren establezimenduen galeren aldean. Euren jarduerekin jarraitzen duten establezimenduen artean ere enplegua hazi egin da eta 12.490 lagun gehiago dituzte. Emaiza orokor gisa, jarduera ekonomikoak 17.557 lanpostu sortu ditu.

Txandakatze handiena *pertsona fisikoaren* lege-formula pean sortzen diren enpresetan gertatzen da, sarreraren ia %57,5 eta irteeraren %69,4 eragiten baitute. Horien saldo orokorra, bai jarduera eteteagatik, bai beste forma juridiko batera eraldatzeagatik, 1.154 establezimendu jaitsi da, baina hala ere, 32 lanpostu irabazi dira.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2003

Jardueraka	Saldo orokor. (2003-2002)		Lege-nortasunka	Saldo orokor. (2003-2002)	
	Kop.	Enplegua		Kop.	Enplegua
Guztira	1.509	17.557	Guztira	1.509	17.557
Industria eta energia	-143	1.082	Pertsona fisikoa	-1.154	32
Eraikuntza	747	4.842	Baltzu anonimoa	-222	-3.482
Merkataritza eta konponketa	-437	2.528	Erantzuk. mugatuko baltzua	2.644	18.884
Ostalaritza	-288	1.545	Bestelako baltzu eta elkart.	249	2.288
Garraioa eta komunikabideak	-270	981	Bestelako lege-erak	-8	-165
Bankuak, aseguruak eta enpres. zer	1.494	3.581			
Bestelako zerbitzu-jarduerak	406	2.998			

Iturria: EUSTAT

Azken urteotako dinamismoarekin jarraituz, 2003. urtean, erantzukizun mugatuko baltzuak 2.644 establezimenduko saldo positibo orokorra eta 18.884 lanpostuko gehikuntza garbia izan du. Forma juridiko honek bere enplegua ia bikoiztu egin du 1998tik eta 190.833 lanpostura iritsi da 2003an. Horregatik guztiagatik, bere pisu espezifikoa handitu du, bai unitate-kopuruan eta baita enplegu-balioetan ere, gainerako forma juridikoen kaltetan. Bestalde, baltzu anonimoen establezimenduek 222 unitate galdu dituzte eta enpleguaren saldo garbian ere 3.482 lanpostu galdu dituzte, batez ere, jarraitzen duten establezimenduen enplegua murriztu egin delako.

Demografia jardueraren arabera aztertzean, *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak* (sarrera guztien %27,8 eta irteera guztien %20,2) eta *eraikuntza* (sarreraren %22,9 eta irteeren %19,9) jarduera-adarrak nabarmentzen dira, sektoreen guztizkoaren aldean duten euren pisuen oso ginetik dauden proportzioekin.

Enplegu garbiari dagokionez, sortze handiena *eraikuntza* adarrean gertatu da eta enplegu berri guztien %27,6 ekarri ditu. Egiten duen ekarpen hori nahiko handiagoa da sektore guztien aldean duen pisu espezifikoari (%9,6 inguru) dagokiona baino. Bigarren postuan, *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak* ditugu, %20,4ko ekarpen garbiarekin.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, dudarik gabe. Berak bakarrik sarrera guztien %85,8 eta irteera guztien %87,3 hartu ditu. Gainera, establezimenduak geruza-aldaketagatik galdu dituen talde bakarra da, igotze ugari izaten baitira enplegu-maila altuagoetara. Enplegu-sortze orokorrari dagokionez, geruzarik dinamikoena 20-49 enplegukoa da eta enplegu berrien zatirik handiena ekartzen du, bai sarreraren eta irteeren arteko diferentzia positiboagatik, eta bai jarraitzen duten establezimenduetan enplegua gehitzeagatik ere. Faktore biak batuta, geruza honek 5.110 enplegu berri ekarri ditu, guztizkoaren %29,1.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tlf:+34-945-01 75 43 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es